

Banda marroiaren kalteak pairatzeko konpentsazioak eta tratamendu fitosanitarioak egiteko laguntzak kendu dituzte

Basogintza-sektorerako 2021eko laguntzen dekretu berria apirilaren 28an argitaratu zenetik dago indarrean, eta 3,1 milioi euroko laguntzak aurreikusten ditu, iaz baino gutxiago. Aurtengo dokumentuan ez da konpentsaziorik aurreikusten banda marroiaren gaixotasunak kaltetutako 30 urtetik beherako landaketentzat. Neurri hori bereziki mingarria da, GEBEn ustez. Baso-jarduera eta basozaintza sustatu beharrean, mendiak bertan behera uztera bultzatuz. Kontuan izanik, gainera, gaur egun Gipuzkoako basoaren % 16 abandonatutako mendia dela jakinik. Datu kezagarria benetan.

Covid-19ak krisi sozial, sanitario eta ekonomiko handia ekarri du. Eta krisi horrek baso-laguntzei buruzko dekretuan izan du eragina. Badakigu Gipuzkoako Foru Aldundiak ahalegin handia egin zuela, batez ere iaz; izan ere, azkenean, laguntzen partida handitu zuen, hasieran jasotako 3,6 milioietatik 4,8 milioietara, hain zuzen ere, ondorenean banda marroiaren kalteak pairatzeko konpentsazioak gehituz.

Aldundia egiten ari den lana baloratzen dugu, baina, era berean, kezka handiz ikusten dugu banda marroiaren gaixotasunagatiko konpentsazioak jarraitutasunik gabe geratzen direla, jabe asko patogenoaren mende uzten dituelako, inolako konponbiderik gabe. Izan ere, kontuan izan behar dugu Espainiako Gobernuak gaixotutako zuhaitzak kobre oxidoarekin behar bezala tratatzeko ezarritako mugak eta debekuek jarraitzen dutela.

Aurtengo dekretuari begira: 8.4 atala kentzea da mingarriena guretzat. GEBEn gutxien ulertzen duguna. Kontuan izan behar da oraindik 15.000 hektarea pinu gaixo ditugula lurraldean. Beraz, 8.3 (osasun-tratamenduak egiteko laguntzak) edo 8.4 (banda marroiaren gaixotasunagatik 30 urtetik beherako landaketetarako konpentsazioak) neurriak ezinbestekoak izan beharko lirateke gure baso-jarduerarekin jarraitu ahal izateko. Laguntza horiek guztiak beste euskal lurraldeetan mantentzen direla ere aipatu nahi dugu.

Gure aldarrikapenak Foru Aldundiari helarazi dizkiogu, iaz egindako aparteko ahaleginari eusteko eskatuz. Jakitun gara gaur egun bizi dugun errealitate ekonomikoaz, baina esan behar dugu, jabe garen aldetik, galera handiak izan ditugula eta jasaten ari garela, Gipuzkoan 100 milioi eurotan kalkulatuta.

Ziurrenik, ez da nahikoa baliabide izango kalte horri aurre egiteko edo kalte hori arintzeko, baina datozen urteetarako ezinbestekoa iruditzen zaigu ekarpen hori egitea.

Eukaliptoaren murrizketa gehiago

Dekretu berriaren beste alderdi garrantzitsu bat eukaliptoari ezarritako murrizketa berriak dira. Gipuzkoa da, alde handiz, espezie hau gehien mugatzen ari den lurraldea, hain zuzen ere, ezarpen txikiena duen lurraldean: zuhaitz-masa osoaren % 1.

Dekretua argitaratu baino astebete lehenago, komunikabideen bidez jakin genuen Gipuzkoako Foru Aldundiak eukaliptoia mozteko gutxienerako adina 10 urtetik 25 urtera atzeratzea erabaki duela, edo, hala badagokio, 37,5 zentimetroko batez besteko diametroa izan beharko lukeela, gutxienez, moztu ahal izateko. Egoera horren aurrean, GEBEK honako hau esan nahi du:

- Badakigu zer-nolako polemika eta eztabaida sozial eta politikoa sortu den espezie horren inguruan, batez ere azken urtean, eremu jakin batzuetatik sustatuta, baina garrantzi handiko erabaki batek eztabaida lasaia behar du, orain arte inplikaturako eragile guztiek eman ez dutena. Berriz ere, alde batera uzten dira espezie bakoitzaren funtzioa, erabilerak eta habitat jakin bakoitzean izan dezakeen egokitasuna.
 - Gure ustez, arreta espezie jakin batean jartzen denean, baso-lana bera eta gainerako espezieak zalantzan jartzen ditugu. Nork ziurtatzen digu etorkizunean ezin dela gauza bera egin beste espezie batekin? Hamarkadetan zehar sektore kontserbazionistei entzun dizkiegu intsinis pinuak sortzen dituen ustezko ondorio kaltegarriak. Gaur egun, espezie horren etapa amaitzen ari denean, jabeok bakarrik gogoratzen ditugu jasan behar izan ditugun gezurrak.
 - Orain, eukaliptoari buruzko aldarrikapenak kontuan hartuta, denbora kontua da sektore kontserbazionista horiek orain arte arreta handiegirik eskatu ez dieten espezie berriak kriminalizatzea. Zain gaude.
-
- Horrelako erabaki politikoek zalantzak sortzen dituzte basogintza-sektorean. Errentagarritasun minimoari eustea ahalbidetzen duten ziurtasunak eta ekintzak inoiz baino gehiago behar baitugu, ez kezka eta zalantza gehiago.